


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

203n. zenbakia / urterrilla
1996



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**GALILEA'KO ITXASOA
JESUS'EN LURRALDEAN**

URTE BARRIARI AGUR, ITXARONPENTSU BAINA NEGARREZ

Egutegiaren azkenengo orria, egutegiaren leenengo orria, urte barria, baina benetan barria?

Sasoi onek bakoitzarentzat esanai desberdina dauka: Urneen zoriotasuna Olentzero edo Erregeen etorrearen aurrean, enpresen ernaitzen neurketa eta aurrekontuen prestakuntza, Eleizaren ospakizunik garrantzitsuenetarikoa, erosketen zorarena, gazteen opor luzeak eta nagusien laburrak, janari gozoen betekadak...

Baina arlo batzuetan urte aldaketak ez dino ezer. Irakaskuntzan, adibidez, geldione bat, besterik ez da, oraindino ez da ikasturtearen erdia ere eldu eta. Eskuntzan urteak Ekainean, edo obeto esanda. Irailean asten eta arnaitzen dira.

* . .

Dana dala, oiturak besterik ez bada ere, zorionak eta urte barri ona ernoteko sasoi danez, (naiz eta nire aldetik orretarako urteko egun guztiak baliogarriak diran), nire aldetik ere irakurle, ZORIONAK ETA URTE BARRI ONA IZAN DAIZULA.

Baina (zergaitik gauza eta asmo barrien aurrean beti agertu bear "baina"-ren bat? bizkaiera zaleak badaukagu urduri eta larri egoteko arrazoirik.

Gure etorkizuna zeozertan badago, urneengan dago, eta batez ere onek erabiliko daben izkuntzan. Eta geiago sakonduz, urne oneei erakustsiko jaken euskalkian.

Orixe dogu adarretatik oratu bear dogun zenena! Asmo eta gogoei begiratu bearrean, datuak ikusi bear doguz. Eta datuak oneexek dira (artu eizu muku-zapia rnalakoak sikatzeko): Bizkaian, bizkaieraz erakasten daben eskolak ez dira OGEL-ra eltzen. Ondo irakurri dozu, OGEL. Orretatik iru Bilbon dagoz, beste iru Berneon eta beste orrenbeste Zornotza aldean. Beste guztiak an-or-emen sakabanatuta (Ondarru, Markina, Leioa...).

Datuotarik ondorio interesgarriak atara leitekez gainera. Naiko arrigarria da Bilbo inguru erdaldun bat izanik, iru ikastola aurkitzea bizkaieraz emoten dabenak, eztabaidagarriagoa izan leitekela izkuntz eredu, batuera edo bizkaiera, aukeratzeko ordua.

Azken hatean, euskerarik ez dagoan inguruan, zeozer sartu bearren larrituasunak eta komunikabideak eta "rmodak" daukan garrantzia ikusirik eztabaidagarriagoa egiten dau eredu bat edo beste aukeratzeko.

Datua oraindik arrigarriagoa biurtzeko zera esan bear da: Iru ikastolotatik bi Txurdinagan dagozala kokatuta, Bilboko ingururik erdaldunetarikoa, eta izan ere ez dirala edozelango ikastetxeak, ikastolen rnunduan ondo irabazitako ospea daukienak baino, bai ikasketa rmailagaitik bai emoten dan irakaskintza rnotagaitik.

Ikastola onek txiki-txikitatik asita Unibertsitaterainoko ikasketak eskeintzen dabez gainera. Bata Begoñazpi Ikastolea da eta beste Kirikiño.

g * *

Baina zer gertatzen da inguru euskaldunetan?

Gauza arrigarriagoa oraindino. Adibidez Mungian orain arte bizkaiera eskeintzen dauan eskolea, ezkuntza ikuskaritzak orrela aolkatuta, erri-eskolea edo "eskola publikoa" deritxona da. Kontutan izan bear da eskola onetara umeak bialtzen dabezan gurasorik geienak kanpotarrak dirala edo kanpoko jatorria daukela.

Ostera betiko ikastoleak, guraso eta ernerik geienak ingurukoak izanik, batueraz emoten dau. Ingurua dinoadanean, Meñaka, Garniz, Fruiz, Fika, eta antzerako erri euskaldunei buruz berba egiten nago.

Baserri ingurunea, bizkaiera here osotasunean gordetzen dan lekua (orretan badauka zer esanik Martin Olazar, gurre zuzendariak, eginda dauka inguruko euskerari buruzko ikerketa bat eta)-

Nire ustez, ez gurasoak bakarrik, Adnministrazioak eta batez ere Kulturra eta Hezkuntza Sailek badauke zer-esana arlo onetan.

Baina leenengo eta bein gurasoek, semeak eurenak dira eta.

Ez dira konturatzen ze euskera erabiltzen daben euren serneak eurekaz berba egitean? Ala oraindino ulertzen ez dana da onena? (Ez dakit zer esan dauan baina ze ondo egin dauan berba!).

Ze euskera egiten da Igorre, Arantzazu, Bakio, Elorrio, Gemika edo Lekeitioko etxeetan esate baterako? Eta zer irakasten da erriotako eskola eta ikastoletan?

Benetan negargarria, batez ere kontutan izaten badogu eskolea etxeko ezkuntzaren luzapen bat besterik ez dala. Beraz etxekoa oinarria bada eta eskolakoa zutabea, ez dot uste etxe on ondo eginda dagoanik biak ez badagoz alkarri ondo lotuta.

Nik ez dakit inguru orreetako ikastolek egin daben ausnarketarik, baina ikastoletan egiten dan bizkaiera akademikoa eta etxekoa ezberdinak izateak irakasleen artean zer pentsatu ernon badau, zer ez ete da batuera eta etxeko bizkaiera kontrajartzen dan lekuetan?

Beste aide batetik administrazioak ere zer-esana daukala aipatu dot. Erri-eskolak edo "eskola publikoak" here ardurapean dagoz, baina ez orreek bakarrik, iaiztik ainbat ikastola ere here ardurapean jarri dira.

Lege barriekin eskola bakoitzak erabaki bear dau artu gura dauan bidea, baina here ardurea daukan erakundeak ere zeozer esan bear-ko leukela uste dot.

Dana dala eskolen bidea aukeratzeko orduan gurasoek ere badauke zer-esana. Ez daigun aaztu eskolen norabidea Eskola Kontseiluak erabakitzen dauala, eta or ezkuntz komunitateko partaide guztiaz dagoz ordezkatura, irakasleak, ikasleak, ikastolaren jabeak (Administrazioa, Eleiza...) eta gurasoak eurak ere. Eta zeresanik ez dago ikastetea kooperatiba bat dan kasuetan.

Onaino izkuntz eredu aukeratzeari buruzko datu batzuk.

Baina arazoa oraindik larriagoa izan letieke bizkaieraz ernoten daben ikastolen bearrirenak ikusita eta batez ere ornitzeko daukan arazo eta zailtasunak.

Baina negarrak obeto apurka-apurka eta on beste baterako itziko dot. Bitartean eta urtea asita dagoanez, barriro URTE BARRI ON ETA ZORIONAK. Eta ez larritu, azken batean itxaropena galtzen dan azkenengo gauza da, bizia itxaropena baino leenago galtzen da eta.

ENRIKE ITXASALDE

URTE BARRI BAT

— Ilbetza diñeoutse il oneri.
 — Orain Ilbeltza Urtarril biurtu da.
 — 11 onek be badauz bere kantak.
 — Kanta bagez bagez onerak
 Bada ez badako kantak.
 Ona Lekitto'ko bat, eskian:



Urte barri barri txarri-belarri daukonat ez daukonari ernon biko sarrri intxaurtxu bi iru kastaña (emoten ez ba'dabe) atsuak dauko popan berakatza aguriak dauko usker-usaña...

— Gipuzko-aldian be Iru Erregee'kin ez dabe orralako en-espeto aundirik. Ona kantatxu bat:

Iru Errege datoz kale nagusitik tripa arduaz beterik ezin egon zutik. Meltxorrek eltzen dio Kasparri besotik ez muturrez aurrera erortzeagaitik.

JESUS NOIZ ILTZAN JAKIN EZ
 (ETB-2. 29-IX-1995)

Noiz jaio zan jakitea ez da erreza.
 — Oraintxen bertan be badagoz eurok noiz jaio diran ez dakitenak...
 —Baña, noiz iltzan? Ori badakigu ziur.
 —Bai, Ostiral Santu egunean.
 Arratsaldeko irurretan.
 Judutarren lenengo Nisan illean.
 — Illargia bete egoala: 14'an. Bañan, ori nork ez daki Euskalerrian...
 Euskal Telebistan, Rornpeeabezotas isaillean, bi gazte jakintsuek ez eben asma noiz zan Nazaret'eko Jesus.
 — Sekulan orrelakorik ! Nun bizi gara? Jentil-baratzen, ala?



AMARAUNA

— Jesus noiz iltzan ez dakite onek arnearma baten historia dakart burura
 Zer kontu dok ori?
 Udaberriko goiz batean arbola adar batetik jaitxi zan.
 — Nora?
 Sasi-ertz batera eta amaraun eder-ederra egin eban, Naiko euli jan eban udaran eta



udazken aldera, apurtutako airak konpontzen ebillela, ikusi eban ari eder bat goraka galtzen zala aidean.

Ez eban gogoratzen nungo adarretik jeitxi zan, ala?
 —Alan dirudi. Gauza bat bakarrik ikusten eban, a aria, an zeruetan galtzen zana, alperrikako aria zala.
 —Eta?

Alperrikako aria a agiñakin apurtu eban. ETA arnaraun eder artan preso gelditu zan, burn gañera erori jakon -da.

OTO INDARTSU

—Aizu, senartxo, goiko ganbaratik kutxa zaarra ekarriko deustazu?
 Atletie eta Real'aren partidua da orain.
 Senartxo, jetxixu kutxatxua...
 —Laga bakian!
 — Bai, ano ibiltzen zara zu tabernan...
 —Zertan ibiltzen naz arro?
 — Sekulako indarrak dauzkazuka. Itzak ederrak...



Itzak ederrak bakarrik ez!
 Berba galantak; baño, arro utsa.
 Or ez dago ezer. Ez dozu indarrak ezta kutxatxu hat ganbaratik ekartzeko be.
 —Ezet? Ontxen ikusiko dozu.
 Joanda ganbarara eta tximistak baño ariñago ekarri dau:
 —Ona ernen kutxatxu ori. Eta, neure indarrak, zer?
 Andre Joxepa sukaldean barrezka lerturik, gizonak panparroi utsak besterik ez dirazelako.

"EUSKALDUNAK EUROPA'KO LENENGO FAMILIA"
 (DEIA: 10-XI-95)

—Nork diño orrelakorik?
 — NATIONAL GEOGRAPHIC aldizkariak.
 —Eta, zer dakar, ba?
 — Gure erriaren historia.
 Noizkoa?
 — 5.000 urte euskera bizi-rik dala.
 —Eta?
 —Eraso-aldiak izan doguzala bai iparretik eta bai egoaldetik.
 Ori bai dala egia!
 — Pirene mendietan gorde dogula genre burua, genre bizia eta geure zer gurtia.
 — Eta, ez dau esaten erria zati bitan dagoenik?
 Bai, ori be bai; baña mendiak batu gaituela.
 Artzaiak gara eta rnendian batzen dira artzaiak. Olen idazlea nor da?
 — Thomas J. Abercrombie eta 1995'eko Azilla'ren zenbakian idatzi be.



EUSKAL-ASTEA

Gaur asiko da Eskolapiotarren ikastetxean (Al. Rekalde, 19'an), urtero lez EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k Bilbao'ko Udal-Batzairen laguntzaz antolatu dauan euskal astea. Astelenetik barikura izango dira itzaldiak, arratsaldeko 8'etan.

Gaur Legarreta'tar Asier gazteak egingo dau berba. Gazte au Mungia'koa dogu eta euskal gai guztietarako oso zale-tua. Bere lana geienbat bartsolaritzan egiten dau ekinbide orretarako Mungia'n dan eskolan gogoz sartuta.

Mungiarak "Mungia Euskalduntzen" deritxon aldizkari bat argitaratzen dabe eta or be agertzen dira Asier gaztea-ren lanak.

Igaz egaztiai buruz egin eban berbaldi oso jakingarria eta aurten gai on zabalduz, abereen mundua azalduko dausku. Gai onek ekolojiagaz be ba-dau zer-ikusia. Ori da urrengo bere zaletasuna.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k bazkideai, eta inguruko euskaldunai dei egiten dautse gaurko berbaldira eta aste osora etorteko, eta or izango dogu euskerea erabilteko aukera bat. Izan be, berbaldiaren ostean alkar-izketa izango da egunero.

Alkartearen lendakari dan Zubiri'tar Iñaki'k egingo dau aurkezpena egunero, eta azkenean Solozabal'dar Paulin'ek azalduko gaiari buruz bertsoak egongo dauz.

EUSKERAZALEAK

AURKEZPENA

LEGARRETA TAR ASIER

Aurtengo Euskal Asteari asiera emonez, Legarreta tar Asier'ek berba egingo dausku, eta bere itzaldiaren gaia "Abere-mundua" da.

Onen aurretik, baiña, egokitzen jotzen dot, bere nortasunari buruz jakingan-i batzuk emotea.

Legarreta'tar Asier Mungi'ko semea dogu, eta jatorriz, euskaldun utsa, umetarik amagandik euskerea xurgatu dauan orreitarikoa. Mungi'ko "Manufacturas Eléctricas" en diardu. Euskerearekiko maitasunak eraginda, erriko "Bertso-Eskolan", eta "Mungia Euskalduntzen" erakundeetan lan egiten dau, eta au dana gitxi bai'litzan, "ZER" gure aldizkarian idazten dau, baita erri-esaldiak be biltzen ditu.

Gaztea da Asier, eta erri-euskerearen aldeze porrokatua. Augaitik, nik uste, "Euskerazaleak" eta "Euskerazaintza" gure erakundeetan tartekoa da. Guk itxaropen andia ipiñi dogu beragan, aldiaren bidean euskal alorrean ospe andiko gizona izango dalakoan.

ABEREEN MUNDUA

SARRERA

Jaun-andreok:

Zeruko egaztiak, onnetako sugangillak, belardian lau oinka dabillen zaldikumeak, goizeko eguzkiari irikitzen zaion arrosa, gauza bat arri-garria, danak daukate berdin: bizia. Iñork ere ez daki, noski, nondik eta nola datorren bizi ori; diotenez, orain milloika urteak dirala, itxas zabal aundia izan omen-zan biziaren jaioterri. Itxas zabalari ordea, Goiko Jaunak eman zion izatea.

Iñori ez litzaioke burutaratuko ere, arrai bat illez jaztea, edo txoria ezkatatz, edo arkumea lumaz estaltzea. Guztiok ezagutzen ditugu zein abere diran, ille, ezkata, edo lumadunak. Baita ere, zeintzuk dabiltzan larru gorrian, igela bezala. Izan ere, igela esku-barrena bezain larru-gorri dala, danok ba'dakigu.

Orrela dakigu, kizkin batetik ertendako lenengo sorkariak, izate argalekoak zirala. Izate auek, ezur-gabeak edo "soin-berak", deitu zituzten. Gero azaldu ziran arraiak, mamorroak, ur-legortarrak, narraziak, ugaztunak. Ta azkenean, milloien bat urte oraindik ezkala, azaldu zan gure aintziñako gizona.

Mundu ontako abere txikienak, begi utsez ezin ditugu ikusi. Lenbirtunak, dira auek. Alderdi guztietan aurkitzen ditugu: lokatzean, urgeldietan, ibaietan. Udarako gauetan, itxasoa argitsu biurtzen dutenak, auetxek dira. Betidanik, abererik aundiena izan dan balearen janari, auetxek berak dira.

esango lizkiguke. Izan ere balea maltzur samara da. Ago ikaragarriaren bi aldetan dituen begitxuek gauza asko ikusi dute. Agian esango zigun: "Igerian dabillen urartetzat edo arraintzat artzen ninduten garaiak nun dira orain? Lenenlengo arrantzaleak ni arrapatzera onuntz etortzen ziranak: Bizkai'ko itxas-bazterretik irtendako euskaldunak eta espainiarrak izaten ziran. Nor itzuli leiken garai aietara. Geroagora, lan ortarako lagunak ere sortu zitzaizkien. Ikusgarria orduko bale-ontzia. Ontzi oialak zabaldu ta, Terranoba-alderuntz zijoan, ekaizteari gogor-egiñaz. Gabizainak, ontzi agaren gaiñetik, nere aizeztaritik ur-atsa irtezen ikusi orduko, deadar egiten eban: "Ortxadau pafaka" ta, bertan txalupak uretara botatzen ebazan. Ordu osoak nere atzetik ibiltzen ziran. Arpolariak trebeak izan arren, geienkoenean arkitzen neban zorigaitzetik irtetzeko bidea. Gaur, berriz, ontzi-sail osoa kañoiakin atzetik izaten dot. Aldika, radarrarekin begiztatzen nabe. Beste aldietan, ordea, itxasoz-itxaso, beribil egalariekin, nondik atzemango naben or dabilzkit. "Bale begiztatua, bale eskuratua". Egiatzko arraingintza dan ontzian bertan zatikatzen nabe. Ogei ta amar metroko arrain bat txikitzea ez da gauza utsa.

Berreun metro urperatuko naz, or beintzat ez nabe arrapatuko. Ordu erdi batez 4 m. kubo aize neure barruen gordetzen ba'dakit. Negua urbiltzen ari da ta itxas-belarrez bizkarra beterik daukot. Ipar-itxaso utzi bear dot eta giro epelagorantz jo. Bide egitean, ur-gaiñeko izkira txikiak jango dodaz. Nere bale-kume maitiari jaten emateko, izkira kopuru aundia bear dot. Nere esneak, egunero, 90 kg. koipe inguratzen deutso. Ori guztia, ago zabalka egonik, ez da irixten. Ta onela, itxasoan dan kumerik ederrena neuk dekot. Jaiotorduan 7 m. zan ta 2 Tm. pixatzen ebazan.

Atlantiko-itxasoan sartzen ausartzen banaz, an topo egingo dot izurde eta mazopagaz. Ekaizte-aurretik ur-azalean, aspergabe, jauzika ibiltzen diran arraintxoen irenele izaugarriak dira auek.

SABEL-SAKELDUNAK "MARSUPIALES"

Kanguru gorriak, gaua igaro zeban, mendi-goialdean, aitzaren babesean. Australiar baserritarrek kanguru uerrari, "zaarra" deitzen deutsoe. "Zaar" onek, etzuen lo aundirik egin. Zerbaitek adierazten omen eutson, eguna bukatu baño len, eizilariak arrapatuko ebela da. Ta orrela, bildurrez eta kezkaz beterik, aurrea artu nai izan dau. Bere eme-lagun ta kumeakin (au ederki ta epel-epel), iges egiten dau. Kanguru txiki pout ura ikustean, iñork ere etzuan esango, 0,02 m. baño geiago etzauala neurtzen jaiotegunean. Baña bi illabetez amaren esneak azi ta gogortu dau. Orain ez du kezka txikienik ere; Ikusi duelako "zaarrak" nola jokutzen dauen. Or dago, aldika, zutunik; ta orduan aurreko bi anka txikiak bular aurrean biltzen dauz. Beste aldika, berriz, buztan sendoaren gaiñean jarrita, atzeko ankekin tunpetako

galantak asten da banatzen ar "zaarra". Tasmania'ko otsoak ere orduan iges egin bear izaten du. Otso au basatxakur anker bat omen da.

Kanguruak, 5-10 m. jauzi-egiñaz, eukalitu basoan zear doa. Adar baten urkadura gaiñera igo-ta, ille uerdun koala amak, lore batzuek gozotzat ematen eutsozan bitartean bere umerari. Baso artan ba'ziran beste biztanle asko ere, erdi-izkutuan bizi ziranak. An bizi zan isats sendo atzilariduna duen "kuskusa", sudur ori-oria eta begi aundiak dauzkana. Baita, "kosu" maltzurra ere, eta beste sabel-sakeldun asko.

Baño sakean egoan kanguru txikiari etzioten axola aundirik ematen, Tasmania'ko deabru berberak ere. Lasaitu dira onezkero kanguru aundiak. Ta larre berrian jaten pozik ta gogo onagaz dabilzan bitartean, kanguru txikia, bide luzeaz nekatu-ta, lo gelditu da.

TXAKUR ETA KATUAK

Gure lagun zaar txakurrak, gitxienaz 7.000 urte ba'deuko. Itz-egitea ez, beste guztia ba'daki; ala ere, barruko poza edo illuna azaldu nai dauenean, zaunka, orroara edo auriaka asten da.

Nundik dator txakurra? Otso, txakal, edo basa-txakur-rengandik omen dator. Pizti eiztariak eta eskimaldarrak otsoagaz estal arazten dituzte elur-lera-txakurrak, iraupen geiagokoak eta indartsuagoak izan daitezen jaioko diran txakurrak.

Txakur-motak 300-dik gora omen dira: eize-txakurrak, yan-txakurrak, eta abar.

Antxiña erregeak txakurrakaz ibiltzen ziran orain, basurde eta azeri eizian. Gaurko egunean, txakur lasterkariak, batez ere, azeri eizarako balio dabe. Beste batzuek berriz, agiriko eizarako eskolatuak daude. Galgoak eizari iges-arazten deutso, eta laisteraldian il egiten dau. Auxe da txakur guztietan zauliena; orduko 59 km. iritxi izan ditu. Txakur guztietan aundiena, ala esaten dioten San Bernardo-txakurra omen da. Elur-ardean, Alpe mendietan, galduak, askotan salbatu izan dituen txakurra auxe.

"Kanitxe" txakurra benetan txalogarria da. Iru eginkizun, beintza^t egin izan ditu: asieratik, aateak arrapatzen ebazan. Gero Frantzia'ko erreboluzio-garaian, godozte-txakur biurtu zan. Orain, berriz, yan-txakur, au da, arokeri-txakur, ta aldika eizi-txakur biurtu dabe.


Luzaroan aipu andia izan eban erbi-txakur lerdenak. Gero guztien agotan zebilen txakur-mota ñañoa. Beso-larru barruan, aldika, izkututzen ebazan; margolari aipatuek pin-tatutako margo-oiaketan azaltzen diranez.

Ille latzeko "fox" txakurra, "txau-txau" txakurra, zezen-txakurra, "bassets" ta "boxers" txakurra biurtu jakuz yan-txakur edo arrandi-txakur.

Katua, bai ezin askatutako korapilloa dala. Korapillo aundia, alegia. Zazpi bizitza omen ditu ta. Egiptotarrak



H'11wH dx

•znzrxnnp n.t.aa L urlauo t~zr.ury~T



Azalpena.- Ezkerrekoan 8 eta 13 desagertzen dira eskumakoan 5 eta 15 agertuten dira.


|wpm r~a rolrwnNsa nlrzOaq `zofrp Tq utpzagza jadrl urpinrj ola.ualzg



LLNLJ INHIIHV(1 NfIQIVNSfIH

N31SVN |

KONDAIRA



Ortik gora edo beera ugaritzen dijoa Ekialderuntz. Asia'n geienak, guztiak ez ba'dira, Rh dute; Afrika'n ere orren antzera. Ez gera, ba, ez Afrika'tik ez Asia'tik etorri; andik kutsatuta etorri izango giñan da. Emen bertan sortuak gera.

Geneeri buruz zer diozu?

– Luigi Cavalli Sforza, italiatar genovatarra, genetikako irakasle da Laterri Batuetako Ikastola Nagusi batean, eta onexek esaten duena auxe da: Euskaldunen geneetik atezratzen dan ondorenak dionez, eurak dira europa'ko erririk zaarrena.

Ez daukagu Histori-aurrera joan bearrik geure asaben aztarnak topatzeko; gaurko euskaldunen gorputzetan diraute aztarna oneik eta eurak dira gaur eguneko jakintsuen aztergai.

"Orain 30.000 urte, euskaldun guztiek zeuden Rh kutsaduratik aske ta libre; orain, guzti oiek %30'rera jetxi ba'dira ere... Baña, euren inguruko erriak %%15'an daude". Orrela eta geneak batera datoz.

– Baña, gene onek zer dira?

– Gorputzeko bizirik diraun zatirik txikenari zelula, soin-kizkin edo bizi-alea deritzen zaio. Zelula onek badu beste zizkin edo nukleo bat ere eta beronen barruan, zurubi baten antzeko

diran kromosomak daude, eta zurubi orren mailletan, geneak. Kromosoma edo gun-aril bakoitzeko 50.000 gene.

Gene bakoitzak, mezu bereizi baten bidez (mensaje codificado), proteina bat sortzeko apaindura edo ordenamentua du. Gure gorputzak izugarrizko lantegi baten antza du, eta geneek zuzentzen ditue miragarizko naaste eta zailtasun guztien kopurua. Gene oietan daude (Sforza jaunak dionez) munduko giza-talde bakoitzaren historia.


Eta, berez, ez dira sekulan aldatzen.

Don Joxe Miel'ek susmoa artu eta bere ondorengo jakintsuek sumo on egiztatu: Euskalduna Cro-Magnon'eko gizakiaren ondorena da.

ARRINDA'TAR ANES



CRO-MAGNON ETA EUSKALDUNAK



—Aizu, nungoak gera euskaldunak?

Galdera orreri erantzuteko irrika izan dute beti jakintzuek, aurreko gizaldian batez ere. Batzuek esaten zuten, izkeratik, Asia'tik etorriak giñela; besteak, berriz, Afrika'tik zioten; baña, iñork ez zion arrastorik ateratzen arazo oneri. Izan ere, orduan, euskera besterik ez zuten itsu-aurreko bidea egiteko...

Gaur beste bide asko daude eta bide oietatik zebillen D. Joxe Miel Barandiaran'go, susmo au artu zuenean: Euskaldunak Cro-Magnon ar-zulotik datoz. Susmoa zan eta susmo bezela gelditu zan. Baña, ondoren 1974'garren inguruan, Jean-Bernard Paris'eko Ikastola Nagusiak, eta Jacques Ruftié Toulouse'koak, susmo on ziurtu zuten gaurko euskaldunen odol eta kulturatik.

Ziurtasun berbera atera dute Ameriketako Unibersidadean, gure "geneak" direla bide.

—Orduan, on ala ba'da, Ienagoko galdera aldatu egin bearko da.

—Bai. Orain ez dago "euskaldunak nundik etorri dira" galdetzerik; galdera aurrerago bota bear da "Cro-Magnon'eko gizakia nundik etorri dan" galdetuz. Gu, euskaldunok, jakintsuek diotenez, emengoak gera, Pirenee mendikoak, Europa'ren sartaldekoak eta gure artean sortu ziran koba zuloetako margo eta marrazki miragarriak.


—Santimamiñe ere talde orretakoa al da?

—Bai Santimamiñe, bai Altxerri eta Ekain, bai Isturitz... Bai aldameneko Altamira, Pirenee mendietakok Niaux eta Trois Freres, goragoko Lascaux eta Ruffinac, eta abar...

Arte eder on agertzen diran leizeetako ardatzean dago gaurko Euskal-erria. Cro-Magnon'eko askaziak, etniak, guregan dirau oraindiño.

Emen, aitz-zuloetan, agertzen dan ederti on berezkoa da, gauzak berez diranen antzeko agertzen duen artea... Sei milla urte beranduago, ego-aldetik etorria, bada Españan beste marrazkiak egokitzeko era bat ere, Capsiense deritzana, gauzen ertza bakarrik narkatzen dituen eta berez diran bezela agertzeke... Erri desberdiñak, arte desberdiña...

— Eta, zertarako egin zituzten marrazki onek?



EDESKIA

tea lortu eban Garaidik. Oiezlako gauzea irudian! Ama gaxorik egoala eta, geienetan etxean egoten ziran eta.

Anka egin baleie lez! Bai, arritzekoa!

Garaidik Egurmendiren jauregirantza jo eban eta ara eldu-takoan, Patxi alboko lorategiko arrizko jesarleku baten jesarrita zelatan egoala ikusirik, inork ez eian ezer asmatu edo, bere atzean, bizkar-bizkar, jesarri zan, ezezaguna izan balei lez.

Patxik isilka-misilka barririk ez eta Egurmendi etxean egoala adierazo eutson. Garaidik, bere aldetik, Karmen-txorena aitatu eutson. Klean Egurmendik bekokilun irudi izan eban eta, ziur antzean, orregaitik izango zala begitan-du jaken bie.

Gerotxuago, leenengo Garaidi eta geroago Patxi, urrenez urren, guztiz alkar ezezagunak izan baleitez lez bata bestearengandik aide andia itzita, Erriburutarren etxera bazkaltzen joan ziran.

Andik asago ez, Joxe Jokinek, bere ostatuan bazkaria jateko begira egoala, ekunkaria irakurten ziarduan.

Neskameak bazkaria ekarri eutson eta Joxe Jokin, irakurten egoala ikusi ebanean, Muñuberen logelan egozan aldizkari zaar batzuetan, beinola galdutako gizaseme gizagaiso zanzaz zeozer irakurri ebala agertu eban.

Joxe Jokinek, a entzundakoan, aldizkari areen bila bialdu eban neskamea.

Oneek egunkari zarrok ekarri eutsozan eta... Ene! Orduan zala ogei urtekoak ziran! Bazkaria jan aalean egunkari areek goitik beera irakurri ebazan.

Alako baten. Zapla! Urgaingo barriak aitatze nebezan eta areen artean Pagodirena eta bere orratzena be bai.

Muñuberi ikustitako orratz berbera zan!

Alan bada, Muñuberen gelara igon eban, baina ez eban orratzaren lorratzik aurkitu be.

Egunkari zati areek ondo tolestu eta sakelean sartu ebazan, Garaidiri emoteko, nonbait.

Garaidiri, andik agertu eiten, eskutitz bat bialdu eutson urrengo.

Jan eben, bada, Erriburutarren etxean bazkaria Patxi eta Garaidik. Ordurarte ezer gitxdi argitzea lortu ebela autortu baeutseen be, ez eban, baina, Erriburu jaunak besteek esandakoa sinistu gura izan.

Besteen agotik ilobiarena, Muñuberen orratzena, Pagodirena eta abarrak entzundakoan zurtz eginda luto zan Erriburu. Ain zan zintzoa Egurmendi! Eta gainera, aren lagun izan be bazan. Ondo ezagutzen eban, bada! Sinistu ezinik egoan.

Patxi eta Garaidik ikerketa guztiei isiltasunik aundienean aurrera eragin gura eutseen, inori, errubakoren baten kalte egin bank.

Ezin, beste aldetik, Muñubek esaten ebanari sinismen aundirik egin, Erribururen eritxiz. Erriburuk alperti eta txotxotzat eukan eta. Begitan artuta, arean.

Arrigarria begitanduten jakon Amundatarrek (Karmen txo

eta gurasoak) aide egin eta orretaz Egurmendi gazteak tutik jakin ez izana.

Muñubek Egurmendiri erru guztia egotzi gura eutsola eta, Erriburu asarre bizian jarri zan. Olangorik! Gizontasunik ez ebalako, Muflube alperti arek!

Baina poliziari salatu baino leen, arik eta erruduna nor zan jakin artean, agopeko edo isilpeko ikerketeagaz jarraitzea ebatzi eben, bada, gurer lagun biek. Onetan be, Erriburutarrek bat etozan.

Garaidik Donostiarako bidea artuta, Patxi Egurmenditarren etxerantza abiatu zan.

Bein Garaidi donostiara elduta, Muñuberen emaztegaia zan Begoñare netxera joan zan.

An Muñube aurkituko ebalakoan, nonbait. Etxeko atezainaren uste ona irabazteko eta Muñuberen laguntzat artu eian, orratzaren kontua esan eta bera be erakutsi egin eutson.

Besteak a ikusitakoan, Begoñari here gurasoek oparitu eutsoena zana ziurtatu eutson Garaidiri. Ederra izan zan Garaidik artu eban ezustea! Baina, besteak agopean eukiko ebala berbea emon eutson.

Bien bitartean, Begoña agertu zan. Onek Garaidi ikusi ebanean, Muñuberi zeozer txarra jazo ekikeon uste izan eban. Ainbat egunetan Muñube ikusi barik egoan eta. Garaidi neskatoa baretu guran ibili zan.

Aor bada, non Muñube barriro guzurrertan arrapatu eban gure Garaidik! Guzurra guzurraren gainean baino ez erabilan besteak eta!

Jazo ziran guztiak eta eukazan arimustur apurrak buruan erabilzan Garaidik, berak eukazan ariok batu eta ondorio- ren batera eldu aal izateko.

Gero here aurrerantzako jokabidea aztertzen asi zan, beste eritxiak be gogotan artuz.

Andik Muñuberen etxera joatea erabagi eban. Ez zan, baina, bertan aren lorratzik aurkitzeko gauza izan. Eta Patxigaz alkartzeko asmoaz Urgainera biurtu zan.

Patxik be, Muñuberen lorratzik ez eban usmatu, antza.

Joxe Jokinek Garaidiri bialdutako eskutitzean Muñube erruduntzat emoten eban, olantxe inotson bertan beintzat. Eta a egiztatzeko, argibiderik euki ez arren, esanaren esanez, berak jo ta ke ekiten eutson bereari.

Korapilo matazatsu a nondik askatzeko erarik ez eban ikusten Garaidik eta naiko buruauste sortzen jakon, gainera. Muñube nabarmentzen zan korapiloa zabaltzeko giltzatat! Bai, orixe!

Iñaki MARTIARTU
1995.eko dagonilan
(jarraituko)

AMABOST EGUN URGAINEN

AURREKO JAZOKEREA :

Txomin erriko lurperatzaileak zabaldu eban ilobi baten, tiro batez ildako emakume baten ilotza aurkitu eban.

Ikarearen ikaraz bere aurkikuntzearen barri emon eutson ondo ezagutzen eban erriko sendi oneko andra bateri.

Onek Donostiako ikertzaile ospetsu baten laguntzea eurenganatu eban, Garaidi jaunarena, ain zuzen.

Garaidik berer leenengo ikerketak egin ostean, leenengo arimusturrak lortu ebazan, Muñube eta Pirminengan susmoak jarritz.

(jarraipena)

Garaidi, geiago jakin guran, Erriburutarren etxera joan zan. Eta bertan bazkaria jaten egoala, ekianetik erdia baino ez eutson esan Maritxuri. Areri ekian gutzia atarozoteko asmotan, nonbait.

Alan bada, Maritxuk, Egurmenditarrak errian aberatsak izan, izen ona euki eta egiteko onekoak zirrana egiztatu eutson. Joxe, semea, alargundu ostean Urgaingo neskakata bategaz ezkontzekotan egon ei zan, Karmentxogaz, ain zuzen.

Berau oinarri apalekoa eta Joxe baino askoz gazteagoa izanda be, neska zintzo-zintzoa izan be el zan. Ez ei eban, Joxe aberatsagaz ezkonduko zala eta, bere ogibidea itzi eta.

Muñubek, ostera, here osabeak ordainduta, Madrilen osakainkitzea ikasten jardun el eban, alperrik baina. Osabea il jakonean, ikasteari itzi ei eutson eta Urgaineratu egin el zan. Berau be, Karmentxogaz ezkontzeko guran ibili ei zan, onek, baina, beti ezezkoetan ibilten jakon, aurki.

Garaidik, are geiago jakin guran, Pagodiri buruz itaundu eutson Maritxuri. Antza danez, Pagodi eta Egurmendi gaztea txiki-txikitatik lagun minak izan ziran, beti an-or-emenka alkarregaz ibilitakoak.

Bein baten, Pagodi Egurmendiren etxera joiala hetiko galdu zan bidean, non sartu zan, zer jazo jakon edo nora joan zanik inork tutik ez eskiala.

Ez ei zan Egurmenditarren etxera eldu be. Beste alde-tik, egun atan bertan, Egurmendiren emaztea il zan, tifusa euki ei ehala zabaldu zan.

Ezkonbarriak ziran. Beste inork ikusi baino leen, osagi-leak alan aginduta, aurki, lurperatu egin eben.

Osagile a Muñube zaarra izan zan, Muñube gaztearen osabea, ain zuzen be.

Maritxuk, here amaginarrebeak aurreko egunean andra a ikusi ebala esan eutsola gogoratu eban. Arek, tigusa eukan edonor il aurreko egunean olan ezin ibili eitekeala ondorioztatuz.

Muñube zaarrak ekianaz konturatu zan Garaidi. Baina on be ilda egoan. Muñube zaarra zan giltza, bada, korapiloa askatzeko.

Joxe Jokin tabernariak Urgainera bereala joateko eskatu eutson Garaidiri.

Lapurretega egon ei zan here ostatuan eta. Pirminek Muñuberi lapurretan egin gura izan ei eutson! Arantza abiatu zan, bada, Garaidi, abiad otsean abiatu be!

Joxe Jokin eta ostatuan egozan besteek goiko geletan batzuk burrukan egozana igarri ebenean, goiko etxebizitzetara arineketa baten joan ziran. Antza danez, Pirmin here gelara joiala, erretuta, Muñuberengela sartu zan. Berau, gelara sartukeran baten bat bertan ilunetan egoana igarrita, joka asi zan. Pirmin, ostera, here gelara nor edo nor sartu zana asmatuta leengoari joka erantzuten asi jakon.

Egindako utsaz konturatu ondoren, bakotxa norberaren buru-garbiketan asi ei zan. Erritan lorontzi bat apurtu zan eta Joxe Jokinek aren zatikiak beehren gainetik batzen ziarduala, lepoko orratz bat aurkitu eban, Muñuberena, ain zuzen.

Kutxatxu baten barruan sartuta el eukan Muñubek here logelan. Pirminek, barriz, begirada ederra egin ei eutson, Joxe Jokinen arabera beti. Gau atan bertan, Pirminek eukazan zor guztiak ordaindu eta aide egin eban ostatutik.

Beste bank!

Joxe Jokinen ustez, Muñube, bazkalondoan, orratza an egozan guztiei erakusten ziarduala eta, ziur asko, orduan Pirminek orratz a ikusi eta lapurtzeko erabagia artuko ei eban.

Garaidi eta Joxe Jokinek, biok biotara, Muñuberengela igon eben eta orratza kutxatik atarakeran, ortxe! Garaidiren ustebakoa!

Pagodik, bera galdutakoan, eroan eban lakoxea! Sasoi aretako egunkarietan ikerketak eginda eta bilbon eukan ertzain lagunak lagunduta, au berau jakitera eldu zan gure ikertzailea. Pagodirena izan bear eban, bada, T.P. izkiak aldean euki baeukazan eta.

Jarraian, aurkitutakoa agopean eukiteko eskatu eutson Joxe Jokineri.

Korapiloa askatzen ala aundiagotzen joiakon? Gustiaren aria aurkitu bear, gero! Pirminek eta baita Muñubek be baekien jakin zeozer. Amaika baietz! Jazokera guzti areek buruan erabilzala, etxeratu zan Garidi.

An Bilboko here lagunak biladutako telegrama batek itxaroten eutson.

Muñuberi arpegia emoteko asmotan, onek Pagodi hila-tzeko agindua emon eutsola eta, here bila Joxe Jokinen ostatura joatega erabagi eban Garidi. Biok, alkartu ostean,

EUSKAL ASTEA

gurtzen eben zazpigarren jainko bezala. Erdi aroan, berriz, erre egiten zuten. Batzuek maite dabe, besteek, ordea, gorroto. Sukalde -zalea da ta kee-zulo-zale porrokatua. Bere mingain latzaga laztanen bat, bear bada emango deutsu. Batean oso aul eta gogo-gabe agertuko jatsu; urrengoan, aarilgo pelotagaz nundik jolastu egongo da.

Baña berorren begia beti kaiolako kanarioagan egondu da. Etxeko abere guztietatik ulerkaitzen eta mendekaitzena da. Terziopelozko estalpetik atera-ta, azkazal zuri-gorrien zartada beti gerturik dauko. Ondo baño obeto bazkatu arren, katuak ez deutsu, sagu eta beste abere txikien eizekoera iñoiz ere galduko. Katua, aide batera utzi ezker, here basa-izaerara itzultzen da.

Zure katua jatorri onekoa daukazula edo teillatukoa, gizena duzula edo igerra, ille kizkurrekoa edo leunekoa, isats iorikoa edo bakanekoa, isats luzekoa edo motzekoa, edo ain-zuzen isats gabea, Man ugartekoak bezala, katuak "ron-ron" egiñaz azalduko deutsu beti poza. Edozein txokitatik botatzen dozula, lau anken gaiñean beti zutik geldituko jatsu. Galtzen bada, Pulgartxok bezain ziur, bidea aurkituko dau. Berak autetsi zaituelako, txintxo-txintxo etxera bueltauko jatsu. Bañan irripar antza bezelakoa ezpaitzetan duela begiratzen ba'zaitu, zeñiek igarri, zer amts egiten ari dan gure lagun katua?

ZALDIA

Bufoi jakintsuak dion bezala, gizonaren irabazkiñetatik bikaiñenetakoa zaldia da. Geienok, jatorriz Asia'tarra delakoan gagoz. Izan ere, Rusia'tar ikerle jakintsu batek zaldia-aren aitzindaria Asia'n arkitu ehan. Asia'ko estepa edo zelai-latzetan, bizi dira oraindik ere, erdi-zaldi erdi-asto dan basa-astoa, ta etxe-abere izan ondoren basa-abere biurtu zan "tarpan", ta Tibet'eko "kiang". Beñiola, Alpes eta Gaskuñia aldeko basoetan aisitzen ziran basa-zaldi-talde ederrak. Geienetan, gereñu zaar bat izaten zuten buru talde oiek. Gaurko egunean ba'dira oraindik Amerika aldean, Noruega'n eta Shetland urartean zaldi mota batzuek. Shetland urartean azten dira "poney" zaldiak, ingelanderak polo-jolaserako eskolatzen dabezanak.

Urteak eta mendeetan zear, gizonak bere gogoaren arauara edo bearrak eskatu ala, zaldi-mota ezberdinak naastekatu ta obetu egin ditu.

Brontze-garaian, eskuperatu zuen gizonak zaldia. Gurdi edo lan-abereak astunak izaten dira, ta larriak. Odol garbi-koak ordea, ta ingelandar ta arabitar elkarrekin odol naastutakoak, lerden, luzeska, ta laisterketarako oso egokituak izaten dira. Aulki-zaldiak, laister-zaldiak, jolas-zaldiak, gurdi-zaldiak, danak, ederrak izaten dira, naiz ta edertasun desberdiñekoak izan. Lur-abereen artean aundixkoenak diran zaldien begi bizi oietan errez irakurri leike, sena, arrokeria ta nagusiaganakko leialtasuna. Beren nagusiari

azken egoitzeraño laguntzeko eskubidea, aldika ez al dabe izaten?

Zaldiaren belarriak ere itz egiten ba'dakite. Aurreratuz, dirudi esaten dutela: "Dana ondo doa". Goratuaz, berriz: "zaudete ernai", Uzkuertuak, aserrea edo bildurra adierazten dabe.

GURE LAGUNAK

Bei -sail bat, zutik, ta adar luzeak tente, lasai ta bakean dago muiño gaiñean. Aien urre-orizko estalkia, mendi atzean estaltzera doan eguzkiaren argiak arrosa antzeko biurtzen dau. Muñoaren beste aldetik arkitzen da España. Or ikusi leizke, ederki apaindutako mandoak. "Uro" beren antzinarrekin, ametxetan ari ete dira bei oriek? Ez dira oso esnedunak; errape legorrekoak dira. Ez dira ere lanerako oso uztar-bei onak. Ala ta guztiz ere, baserritarra pozik zegon egiten eben lanarekin.

Andik apur bat berago, astotxo sotilla, draka-draka, ba'dijoa bide txiurretik. Belarri illetsuekin aizatzen ditu euliak. Jasan aundikoa danez, bete-beteen zamatua doa. Artaldearen atzetik egin bear izan duen bideak, amaigabea ematen dau. Udalderako alapideetara doa, alegia, artaldea. Bai latza dala astoaren bizitza. Bazka guztietan utsalena dan astalarrarekin naikoa omen du. Alaere, aurretik doakion txakurraren, alboko mutillaren, ta batez ere, danetan opagarriena dan nagusiaren adiskidetasuna irixten badu pozik eta alai biziko da. Arratsalde ontan erritik dator, aste osorako artzaiarentzat txanoa ta euritarako aterki urdin aundia eramanaz.

Zadiak, mandoak eta astoak, laguntzaille bikaiñiak ditugu. Zenbat idi-bikote uztartuek idi goldea edo gurdi belarra ez dabe tiratzen oraindik gure alderdi berde auetan.

Beste egutaroetan, gure etxe abere auen orde, erabiltzen dabez Asia aldeko idiak: "gaialeak". Idi aketzak, konkori idiak, auek berdin bizi dira Afrika'n eta Ego Amerika'n ere.

Auen sendikideak dira Tibet aldeko "yak" basa-idiak. Kamelu, Konkorbikoak ta auen sendiko konkori bakarreko mortu-zamariari, "dromedarioa", alegia, "basamortuko ontziak" egiz ta benetan deitu izan deutsee. Auek gabe gizon taldeek edo karabanak, ezin dituzte igaro basamortuak. Iraupenez eta jan zuurrez bai arrigarria dala abere au. Urik edan gabe egun batzu irauñ leikez, ta helar ezerik gabe illabete osoa. Begi aundi eta eztiak izan arren, kameluak itsusiak dira ta traketsak. Ala ta guztiz ere, laguntza aundia ematen dasku kameluak, gurdi edo zama-abere bezala. Afrika edo Asia'ko leiñu ibilkarien aberastasuna kamelua da. Ille ioriko asiatar kameluak, geienean zama abere lana egiten dabe. "Gobi" aldeko basamortuan, oraindik ba'dira besa kamelu batzuek.

Gaur munduan diran ainbeste abere mota gogoratuko

EUSKAL ASTEA

UGAZTUNAK

Ugaztun guztiak, larru lodikoak dira. Batzuek larru ori, seda- antzeko ille biguñez estalia daukate, ille gogor ta ais-tikariz jantzia. "Yak" eta "llama'k" ille ugaria izaten dute, toki otzetan bizi diralako bata ta bestea. Lurralde beroetan bizi dan ontza txikiak, berriz oso ille lau du. Sagarroia arantzaz estalirik dago. Elefanteak, berriz, bere larru zimur-rean, txima gogor batzuek besterik ez ditu.

Larruaren margoa urtaroaren, bizilekuaren, kuntzearen eta adiñaren arauz aldatzen da.

Jakintsuak, ugaztunen askotariko ortzei begi-emanaz, talde berezietan sailkatu izan dituzte. Alaere, atseginga-riago arkituko zenukete, bear bada, lagun edo etsai, etxe-abere edo basabere lerroan jarriko banizkizute, bakoitzak, bere bizitzan, jokatzeko duenez.

Baña batipat, itz egin bear dizuet zulo-bakar, sendi arrotzagan izadiak egin zuen saio-aldiaz.

Australia'tik Ingalaterra'ra biali zituztenean lenengoz txori-muturdunaren larruak, Europa osoan jakinmin bizia sortu zan. Jostakari txororen batek ez-ote -dio larru zamarrari aate-mokoa josi? Bañan ez, izate arrotz ori benetan izate bizi zana zan. Baita, arrautzak ere, egiten zituena. Ala ta guztiz ere, here umeei bular-ematen diena da. Aateak bezalako zoiezko ezproiz ornituak ditu. Auxe da, zulo-bakardunaren irudia. Uretan edo legorrean bardin bizi da. Sai-zuloan egiten du kabia, ar ta mamorroak jatera ematen dizkie.

Mutur mee ta luzedun zaldizkidea, gaukaria da. Txin-durriak oso atsegin zaizkio. ta azkazaldun aurreko anka indartsuekin lurpetik ateratzen ditu. Sagarroiaren antzekoa da. eta au bezala, aldika biribilkatzen dana. Au ere arrautz-tuna da, ta umeei bularra ematen dizkie.

Egia esan bear, bi abere aukeratuak samarrak dirala. Bañan, gizonagan bukatzen den kate-mailla luze ortan, eratzun bat besterik ez dira.

XIMINOAK

Lurrako berriko ximinoak, bai izaki pollitak. "Titi" txi-kitxoa esku-zuloan sartzen zaizun erakoa duzu, ta ortxen lasai ta pozik egongo da. Ille arrosa-il, edo urre-orizko ximino buruñurduna baiño gauza ederragorik bai-al-da? Bai ziragan-ia duzula berdez jantzitako ximino -urtxintxa ere. Or duzu ximino-armiarra parregarria ere. Gorputz-atalak neurritz gorakoak baditu, isatsa ere neurrigabeagoa du. Itsas orrek, bostgarren esku-ordezko egiten dio. Berorrekin frutua artu ta ain zuzen agora eramaten du. Zauritzen badute, baita ill ere, isatsaren bitartez, zugaizen adarretik zintzillika geldituko zaizu.

Ximino-mota geienak zugaizetan bizi oi dira. Brasil ta Guaiana'ko basoetan bizi diran ximino-orroegilleak, orro-

egite orri zor diote beren izena. Orixe oso urrutira entzun leiken oiva. Tximino-mota batzuek gautiarrak dira: ontza-antzeko muturra duten "tutakusilloak", adibidez. Auek, egunez, zugaiz zarren baten zuloan lo-egiten dute. Geienak lasai bizi dira; aintzindariari men egiten deutsoe. Jatekoa, berriz, errez aurkitzen dabe ta otxanak dira. Bertako in-dioak, ximino-aragia jateagatik, gezi-uztaiez edo tropaz, arrapatzen dabez.

Auetan nabarmenenak, isats-gabeak ta giza-antzarik aundiena daramatenak, Lurraso zaarreko alderdietan bizi dira. Ala ere, bat bakarra da zutik ta bi oindun bezala ibil-tzen dana: Asia'n bizi dan "jibon". Bañan zutik egon nai badau, bi besoak buru atzetik zearkatu bear izaten ditu. Zer esanik eztago, benetan parregarri azaltzen dala.

Piztitegietan ikusi-ta, naiko ximino ezagutu dituzute, noski. Errietako piztitegietako biztanle ezagunenak, "makako" deritzaieen ximinoak dira. Baña ba'leike zuek ez jakitea, "orangutan" izenak, "basa-gizona" esan nai dauala. Sudurrik luzeena dutenak, berriz, Borneo'ko ximino sudur-aundiak dirala. Ba'al-dakizue "mandril" anker aundiak, margorik argieneko muturra daukala, ta "txinpanzek" on-puska dan gizonaren antzeko burua daukala? Bestalde, larrantzean edo aunditasunean, guztien gain gorila da.

Basoko zokorik itsuenean, aien naasiz ta goroldioz bete-rik dauden zugaiz-adar-pean, izaki bat gaitza dago. Zugaiz-orpoan eseri-ta, tripatzar aundiaren gainean besoak bildu, ta illunabarreko otsak entzun nai ditu. Illea ta mutur-ra beltzak ditu. Begi illunak zabal-zabalik, basoko piztirik ankerrenetakoa zai dago. Zugaiz gainean, berriz, adar-urkaduran, berak egindako kabi traketsean dago emea here umeez. Bai erne ta dizdiz aundiakin begiratzen dutela begi oiek. Pizti anker batenak ote? Ez-al-dira, etsaick ertsita, baso adartsura iges-egin bear izan duen basajauntxoan batenak?

Bertan pizti erraldioa zutitzen da. Anka konkortsuen gainean, 1,80 m. aundi da, ta 200 kg. aisa pixatuko ditu. Arriskuen bat sumatu al-du? Edo nolabaiteko otsen bat entzun? Leiaz ta presaka orbel mordoa bilduta, atzean izkuta-tu nai du. Baña bereala asmo-aldatzen du, ta adarrak ta orbelak alde botatzen ditu. Begi-niniak su biuriturik, ukabi-llez bere bular kementsua jotzen du, ta baztar guztiak ika-raz betetzen dituen marru ta karraxiak egiten asten da. Urrutirik kurrinka illunak erantzuten dio. "Gorila" asaldatu duena, basoetako bas-urde bakarti betilluna da. Bañan au here bidetik doa. Ondoren, bare-aldia sortzen da. "Gorila" ixildu da; basa-biotz ankerra pakeatzen zaio; zeruan dizdiz egiten dauan illargiak adierazten-omen dio: "zure zai nau-kazu, Jaun Baltza".

ITXASOKO IZAKI AUNDIAK

Itxasoko bale urdiñak itz-egin balezake, edesti ederrak

ALBISTEAK

KILANCHO

— Zer esan nai dau Kilancho'k?
Aztiei deitzen deutse Kilacho.
— Nun?
Etiopia'ko egoaldean, Sidamo errian.

Emengo aztien antzekoak, ala?
Onek sasi-medikuak dira.
— Eta, benetako aziak?
— Gaixotasunen espiritu txarrak...
— Egon, egon: zer espiritu?

Gaxotasun bakoitzak dau espiritu bat eta on atara bear da lenengotik. Orrelako espiriturik ez dago.

— Jesus'ek be uxatzen ebazan orrelako espiritu txarrak.
Orrek esan nai dau sendatzea.

Jesus'en garaian, orain aldi onetan Afrika'n bezela, usten eben gaixotasun bakoitzak eukala here espiritu txarra.

— Orduan, zer?

- Gaixotasuna kentzeko, espiritu txarra atara bear da gorputzetik eta Kilaneho'ak dau espiritu txarrak ezagutzeko eta menperatzeko aalmena eta indarra.

Kamaneho on sikologo edo sikiatra dok.

Geure antxiñako aziak be egingo ebezen orrelakoak.



OTO BERMIO'N

— Aizu, gizontxo, esango eistasu ordua?

Ordua.

— Ori, ez; neuk naidotena da, trenaren ordua esatia.


— Trenaren ordua.

— Ori, ez; oraingo trenaren ordua!

— Oraingo trenaren ordua.

Oto'k here buruari:

— Ez dagozak emen danok "barruan".



0,07

— Zer dok ori?

Euskal Jaurlaritzak emongo dabena.

— Zertarako?

Irugarren Munduari laguntzeko.

— Jana emoteko?

— Bai, orretarako be bai.

— Arraina emotia baño oba da kañabera.

Eurok arrainak atrapatuko.

Ori, ba.

Biak oba: jaten emon eta jana billatzen lagundu.

EUSKALDUNAK MUNDUAN

— José Sebastián Laboa pasaitarra da.

Donianekoa. Aspaldian Erroma'n egon da.

Panama'ko istilluetan ibilli zan, Noriega generalaren denboran.

— Bai, here babesa Nunziaturan billatu eban.

— Eta bertan, Laboa zan Aita Santuaren Nunzio.

— Aldi onetan Malta'ko ugarteian lan egiten dau.

— Bai eta Libia'ko Gobernuakin ar-emanetan Vatieano'ko Eliza asi danean, berau

izendatu dabe orretarako, Ibiatarrai esku bat emoteko. A, baño, iñok ez dau esaten España osoan an euskalduna danik, "español" baizik. Lapurra izan ba'litz...

— Roldán euskalduna danik ez dau ondiño iñork esan. Nai ba'dahe eta nai ezba'dahe on "español" da...

100 ZIGORKADA

Nori?

— 16 urteko neskato dan Sarah Bala-bagan'eri.

— Zergaitik orrelako zigorra?

Filipinas'tik etorri zan neskame Arabia'ra.

— Eta, zer egin dau okerrik?


— Bere ugazaha neskametarako ekarni eta eme-galdu baten antzera erabilten ebalako...

Orrelako neskaxo batek here nagusia iltzeko, aurretik jaso bearko ebazan galantak.

Betiko leloa.



MIENIA DEUNAREN



— Or dago Frantzia'ko mutur batean Atlantiko itxasoari begira. Uraren erdian emoten dau.

Maria-beeran ondartzatza aundi aundi bat sortzen da.

— Ur-itxaso, ondar-itxaso?

— Bai, ala moduz.

— Eta, maria-goran?

Danak arin-aringa legorrera. Menditxo baten itxura artzen dau, urez inguratuta.

— Or eliza besterik ez dago.

— Eliza eta monastegi bat. An bizi ziran otoitzean eta lanean bakartasun oso batean; orain, berriz, ez deutse turistak bakean urten.

— Asko joaten al dira?

— Beti beteta. Otoitzerako eta lanerako (San Benito'k Ora et Labora, agintzen dau), ez deutse astirik emoten.

— Nik on lenago be entzunda daukot neure lagun bateri: orrelako monastegi batean sartun biar ebala...

— Zergaitik? Ora et Labora asko gustatzen jakelako.

— Ora et Labora?

Bai: Jan da Lo.

BARTOLO ARROPAINGO

OBETU DAGIGUN GURE EUSKERA (I)

Bai, gure euskera gaixo au obetu bearrean daukagu. Zuk eta nik, eta urliak eta berendiak. Euskeraz idatzi egiten dogunok, batez be. Bizkaieraz zein gipuzkoeraz. Euskera mirrina irakurten dot idazlanetan. Euskera erkina, gatz gutxikoa, arlo te xamarra. Ori oraingo barrikeriak eta "astakeri" batzuk aide batera itxita. Geroago eta euskera traketsagoa darabilgula esango neuke.

Egia da. Izkuntzak bata bestearen ondoan edo alboan bizi badira -eta areago naastuta egon ezker- alkarri igurtzika diardue. Igurtzi eta igurtzi. Batak besteari itz arrotzak artu eragin eta bertan txertatu. Mentu eta berba barriak ezarriz. Eragin au ezinbestekoa da berbakuntzen artean. Antxiñakoen artean eta oraingoan artean.

Aspaldi-aspaldiko berbakera dalako, gure euskera onek izkuntza bat baiño geiago izan dauz auzokide. Eta auzoko berbeta onek euren zantzua itxi dabe bertan.

Au argitzeko, adibide bat ekerriko dautsut: "pekotza" (pekorotza) berbearen jatorria. Baserrian jaiio eta baserri-giroan bizi izan garanok, milla biderrez entzun eta esan izan dogu "pekotza" itza. Milla biderrez. Bahia egundo ez jatan bururatuko berba ori latineratik etor dakigunenik. Eta antxiña-antxiña ez dala, ara gizon batek neuri esana: "pekorotza" berbea latineratik datorrela. Zurtz eginda gelditu nintzan. Zurtz eginda batez be, gizon ori Valladolid-koa dalako eta euskerarik ez dakialako, berba bat edo beste izan ezik. Alan be, itzen jatorria eta etorkia asmatzen guztiz argia eta trebea da. Eta gizon orrexek ireki niri begiak. Errazkia dauko. "Pekorotza" berbea latineratik etorri zan euskera. "Pecus, pecoris" latinerazko berbeak euskerazko aberea (animalia) esan gura dau. Eta begira, ni kokolo au konturatu ez, eta euskerarik ez dakian Valladolid-ko gizona bai. Eta jakingarritxo au berak argitu niri. Lotsagarria niretzat! Neure buruagaz asarratu be egin nintzan.

Latinerak barbarik asko emon utsazan euskerari, "berba" bertatik asita. Geienak Elizakoak edo erlijiozkoak izan ziran: elizea, pekatua, arimea, zerua... eta abar. Erdi-Aro garaian euskerari txertatuak. Gizaldietan zear erabilli izan doguz berbok euskeraz, eta gure egunotan be badarabilguz. "Pekorotza" itza, alan be, ez da Elizak emonikoa, latineraren erri-erabilkuntzatik etorria baiño. Au da, Elizaz eta erlijioz kanpo, latinerak bere igurtziak egin utsazan euskerari, eta itz barriak arrerazo igurtziaren igurtziz. Zenbat urte ete dira "pekorotza" berbea euskeraren barrutian bizi dala? Batek badaki!! Mila urte gutxienez baietz eta baietz egingo neuke...

Au leen-alditik arturiko adibide bat besterik ez da. Gaur-egun euskerak alboan -edo naastuta- daukazan berbakerak be igurtzi egiten dautsoe berari, eta erderazko esamoldeak artuazo, euskerazko jatorrak galdu egiten diralarik.

Euskal errian zoritxarrez elebitasuna -ele-naastasuna esango neuke nik obeto- daukagu, eta egoera au euskeraren kaltean dator, eskaratzeko baztar-baztarrean ixil-mixil dakusgun mutiko lotsorra bailitzan, gutxiengo uts-utsaren berbetea dalako, eta arroputz eta aaltsu agertzen jakun gaztelaren mesedetan datorrelako.

Emen doakizuz agerbide bi.

1.- Gaztelarazko FELICIDADES itza euskerara itzultzeko gaur baztar eta zokondo guztietan zabaldu-zabaldurik daukagun berbea ZORIONAK itza da. ZORIONAK! esango dautsu edonork, jakitun izan zein ez-jakitun izan, Euskerazaintzako zein Euskaltzaindiko maixu edo Unibertsitate bateko irakasle izan. Edonork, edonoiz eta edonun. Eta, ara: Gaztelarazko FELICIDADES mugagabea euskerara itzultzeko euskerazko ZORIONAK mugatua erabiltzea, ez da jokabide zuzena eta jatorra, nire ustez. Ez aal dogu betidanik euskeraz EGUNON = BUENOS DIAS esaten? Eta GABON = BUENAS NOCHES, ARRATSALDEON (ARRASTION) = BUENAS TARDES? Ez ete dogu itz mugagabea erabiltzen? Nundik dator kigu, ba, orain, FELICIDADES mugagabea izanda, euskeraz ZORIONAK mugatua erabiltziz itzultzeko ekandu zantari? Gaztelaren eregiñez, zalantzarik bage. Eta guk, euskaldun "esker-onekook" onartu eta kitto. EGUNON = BUENOS DIAS gauza bat da, mugagabea dalako, eta EGUNONAK = LOS BUENOS DIAS beste bat, mugatua dalako. Bein mutikotan aitaux esan eustan: "Joan adi arin-arin auzora eta emoiokak urliari **egun onak** (= **los buenos días**) gaur beraren eguna dok eta". Eta ni arrapalada baten joan nintzan auzora, eta badiñotsat urliari: "Aitaren partez **egun onak** emoteko zuri, gaur zeure eguna dalaeta". Eta gizonak erantzun: "Eskerrik asko, txotxo". Eta arro-arro bihurtu nintzan etxera. Guzti au dala eta, euskera jatorrez FELICIDADES mugagabea euskerara itzultzeko, ZORION mugagabea erabilli bear gendukela dirudit, EGUNON, GABON, ARRATSALDEON mugagabeak darabilguzan lez. ZORIONAK berbeak, mugatua dalako, ez da FELICIDADES mugagabea esan gura, LAS FELICIDADES mugatua baiño.

2.- Beste agerbide bat, iragarkizun iduri.

Gaztelaratik bizkaierara eta gipuzkoerara dator kigun nau-rrigabeko eragiña dala bide, esaldi batzuk txarto biurtzen doguz euskerara. Geiago oraindiño: "En esta habitación hay mucha luz o poca luz" gaztelarazko esaldi itzul-errez au zuzen eta jator euskerara zelan itzuli be ez dakie euskaldun askok eta askok. "Agobetekada galanta bota dok!", erantzun legikit, bearbada, (jere burua jakitun egiten dauan norbaitek. "Esakun bakan ori zelan euskeratu ez dakigulaz". Entzun, bada: Izpitxo bat be ez dot kentzen jaurti dodan "agokada" orretatik. Sinistu ez badagidazu, egin aproba zeure inguruan. Eta ezer baiño leen, zeure buruari itandu zelan itzuliko zenuduken esakun ori euskerara. Eta gero inguruko euskaldunai itandu. Ea zer erantzuten dautsuen. Nik ez dautsuk gaur erantzunik emongo. Etorriko da eguna argi eta garbi emongo dautsudana. Gaur ez, zeuk zeure buruagaz gogoeta eta azterketa egin dagizun. Orra iragarkizuna.

Amaitzeko. Urrengo lantxoetan, onango aztergai eta jakingai diran arazo batzuk aitatu eta argituko doguz. Ainbat jakinkizuni ikutuko dautsagu: Aditzaren erabillerari, deklinabideari, joskerari, galdegaiari, eta abarri. Bakotxeko orrialdetxo bat, besterik ez.

Urrengo arte.

AGIRREGABIRIA

BERTSOETAN

BERTSOETAN

BILDOTSA

Mendi orleian bildots zuria
saltari dabil aizetan,
bedarra jan ta, esnea edan
amaren magal gozotan;
bakea eder mendi gaiñean
eguzkiaren printzetan,
bizitzak ba-dau gozotasuna
arrats berako pozetan.

Goizian goiztar barrero bere,
artzain ta artzaiñora "txuri"
txabol zarretik urteten doaz
bide zear abeslari;
urdaillak gosez, zelaiak eder,
bedar gozoa ameslari,
bildots zuriak edertzen doaz
eskerrak bedar onari.

Begi begira dabiltz gizonak
euren amets urdiñetan,
iñori kendu curen bizia
norbere mizkerietan;
bildots gaisoa, erru gabea,
etsaiak dozuz kezketan,
ainbeste zelai arritu ziran
atzo odol gorrietan.

Zure bizitza otzan ta samur
maitasunaren iduri,
gizon etsaiak biurtu dabe
curen gorputzen janari;
pekatu baltz au parka eiozu
otsoko iltzailleari
zure biziak indartu daion
arnasea apaizari.

EUSKAL ITZA

Jakiturizko jaungoiko Itza
zuri-begira gengoan,
noiz agertuko ete ziñelan
Euskalerriko izkuntzan;
zure argia ain da ederra
gizon zuzenen bizitzan,
Euskalerrria pozez bete da
zure aintzazko jaiotzan.

Jainko berbea, ondo etorri
euskaldunen baratzara
zure semeak eta alabak
argituz egietara;
zure egiak dakar bizia
gizonen biotzetara,
jarraitzailleak gora jasoaz
atseden ederrenera.

Duintasunez artuten zaitu
euskerak bere lurrean,
biraurik ez dau ezagutu nai
biotz garbi zabalean;
jakiturizko joskera dauka
berba eta mamiñean,
zure argia zabalduko dau
erririk erri danean.

Zure berberak garbitu begiz
biotz zokondo guztiak,
zure argiak poztu daizela
samintasun ta nekiak;
zure urreak oritu begiz
biotz sauskada goriak,
euzko semea artu dagian
betirauneko zoriak.

PAULIN

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

ZUZENKETAN: Azkenengo "Zer" zenbakian "Jesus Oleaga Etxebarria" diñoan lekuan, bigarren abizena "Etxebarria" esan bear leuke. (Zer).



Betidanik.

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK